

2002ko EKAINAREN 6ko URJENZIZKO BILKURA

Lizartzan, bi mila eta biko ekainaren seian, arratsaldeko zortziak direnean, Alkate-Ordea: Ana Ederra Irurzun, Udalkideak: Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjenzizko Bilkuran bildu dira.

1.- URJENTZIZKO BILKURAREN ARRAZOA

Batasunako Zinegotzi Taldeak, Premiazko Osoko Udal Batzarra egiteko eskaria luzatu du, Frantziako Gendarmeriak Aubsusson-en burutu dituen atxiloketen aurrean –tartean gure herritarra Aitor Agirrebarrena dagoelarik-mozioa aurkeztuaz.

Gai honek sortzen duen kezka eta duen garrantziagatik, bilkura honetan urjenziz tratatzea proposatu du, Alkate-Ordeak.

Proposamena aho batez onartua izan da.

2.- MOZIOA

BATASUNAKO ZINEGOTZI TALDEAK, Premiazko Osoko Udal Batzarra egiteko erabakia hartzen du, bertara honako proposamen hau aurkeztuz, eztabaidatua eta onartua izan dadin:

Udal honek, Frantziako Gendarmeriak Aubusson-en burutu dituen atxiloketen aurrean –tartean gure herritarra Aitor Agirrebarrena dagoelarik-honako erabaki hau hartzen du:

- 1.- Aubusson-en atxilotu berri izan diren Aitor Agirrebarrena gure herritarra eta Asier Artzallus, Martutenarra baldintzarik gabe aske uzteko exjitzen du Udal honek.

- 2.- Udal hau, erabat kezkatuta agertzen da, frantziar poliziaren eskuetan inkomunikaturik, bi Euskal hiritar hauek jasan dezaketen tratua eta indefentsio egoeratik. Lege Antiterroristaren aplikazioak, giza eskubideen urraketak (inkomunikazioa, tortura, mehatxuak...), bait dakartza berekin beti. Udal honek, atxilotuen egoeraren jarraipen zehatza egiteko konpromezua hartzen du.
- 3.- Udal honek, Euskal Herriak frantziar eta espainiar estatuekin duen gatazkaren irtenbide bakarra, Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen errespetoan datzala aldarrikatzen du. Herri honen hitza eta erabakiaren aldeko lanean guztiok tinko pausuak ematearen beharra aldarrikatzen du; irtenbide demokratiko honi oztopoak jartzen ari direnei aurre eginaz eta Euskal Herri guztian, euskal herritar guztientzat eskubide guztiak lortu arte.
- 4.- Udal honek, atxiloketa hauen aurrean protesta egiteko eta Euskal Herriari zor zaizkion eskubide politikoak aldarrikatzeko, konzentrazio baterako deia egiten die herritarrei.
- 5.- Erabaki honen berri publiko egitea.

Batasunako Zinegotzi Taldeak, Frantziako Gendarmeriak Aubsusson-en burutu dituen atxiloketen aurrean –tartean gure herritarra Aitor Agirrebarrena dagoelarik- aurkeztu duen mozioa aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Ordeak, Batzarra amaitutzat eman du, ilunabarreko zortzit'erdia direnean.